

joan mari irigoien



metak eta Kometak izena jarri dio Joan Mari Irigoienek bere azken liburua-

Altzatarra zarela badakigu, baina, eta donostiarra?

Garai bateko altzatarra naiz, ez oraingo Altzakoa, eta donostiarra ez naiz sekula sentitu. Garai bateko Altza galdu denez, orain ez naiz inongoa.

Tristura sentitzen duzu Altza begiratzean?

Tristura baino gehiago amorrua sentitzen dut hemen gertatutako hondamendiarekin, etxe erai-kuntza eta espekulazioa bitarteko, errekek hondatuz, zaborrak pilatuz eta herria erabat hondatuz.

ditut. Hasierakoa jolasak dira. Bigarren zatian fabulak biltzen dira, batzuk farregarriak, besteak ekologiarekin lotuak...

Hirugarren zatian poema labur-laburrak dira.

Arina da eta saltarina, izan ere gaztetxoentzako izanda ezin du astuna izan eta. Tarteka badaude hala ere helduek errazago ulertuko dituzten poemak.

Idaztean zerk agintzen du inspirazioak edo lanak?

Lanak batez ere, baina inspirazioa ere hor dago.

goa delako.

Ekologia aipatzen duzu liburuan. Zein dira zure ustez gaur egun defenda daitezken banderak?

Ekologismoa bera zalantzarik gabe. Orain adibidez ez nator bat inondik ere Itoizeko urtegiarekin. Ekologismoaren barruan ikusten dut euskara ere. Euskara da, nolabait esateko, Arima barruko zuhaitzetako bat, eta beraz mantendu beharreko zerbait.

Antimilitarismoaren aldekoa ere banaiz. Ez

Altza hura galdu zenez orain ez naiz inongoa

ri. Hiru ataletan banatuta, poesia irakurtzen ikasteko bilduma erraz eta atsegina prestatu digu, Jon Zabaletaren irudi oso politez ongi ilustratua.

Gaztetxoentzat idatzia badago ere, helduok ere aurkituko dugu poema hauetan zertan pentsatu eta non gozaturik.

Liburu berria aitzakia hartuta hurbildu gara Altzako bere etxera, eta beti bezala umoretsu hartu gaitu.

Bestalde, jende asko etorri da kanpotik Altzara: batzuk ahalegindu dira integratzen, euskararen aldeko jarrera erakutsiz; beste batzuk ordea ez dira konturatu ere egin ez dela berdina Euskal Herrira etortzea edo Sevillara joatea.

Igeldo Donostiatik bereiztea ondo ikusiko al zenuke?

Bai, zergatik ez? Altzarekin gertatu zena ikusiz oso ongi iruditzen zait.

«Metak eta Kometak» zure azken liburua nolakoa den kontaguzu.

Gaztetxoentzako poema liburu bat da, baina helduentzat ere izan daiteke noski. Oso saltarina eta bariatua da.

Hiru iturri erabili

Babilonia idatzi nuenean adibidez, iruditzen zitzaidana zen, hor nonbait idatzita balego bezala eta nik jaso besterik ez nuela egin. Nola bukatu ere ez nuen garbi ikusten eta gau batean amestu egin nuen bukacra. Baina tira, hori behin bakarrik gertatu zait.

Nola idazten duzu?

Etxean idazten dut, arratsaldeak hartuz horretarako, goizak itzulpenak eta bestelakoak eginez ematen baititut. Eta normalcan egunero lan egiten dut.

Eskuz ala ordenagailuz?

Lehengigo aldia dena eskuz idazten dut eta gero ordenagailuz, zuzenketak egiteko askoz ere eroso-

naiz inoxo bat eta badakit nola dagoen mundua, baina gutxienez ejerzitoak gutxitzera joko bagenu...

ELKARRIN sartuta ere banago, ea behingoz hizketan jarri eta arazoak konpontzen ditugun. Batzuek besteei barkatzen edo gutxienez elkar aguantatzen hasi behar dugula uste dut.

Eta aberria?

Baita ere. Euskal Herrian sinisten dut, sinisten dut herri bat garela eta egokicra horretara ailegatuz gero Euskal Herri baten aldekoa nintzateke.

Bidaian pasa zenuen urte batzuk. Oraindik berdin duzu bidaietarako zaletasuna?

Zer moduz iruditzen zaizu gabon kantak bozgorailu bidez kalean jartzeari?



FRANCISCO MENDIZABAL
PARTE ZAHARRA

« Oso ondo iruditzen zait. Askoz gehiago molestatzen dute tabernetako musikak eta jendearen garraiek. Gainera, eguberrietarako giro polita sortuko du. »



AGUSTINA ALVAREZ
PARTE ZAHARRA



ENRIQUE GOMEZ
PARTE ZAHARREKO
DENDARIA

« Komertzioen onerako izaten da beti kaleak girotea eta musikak horretan asko laguntzen du. Ez dut uste auzokideentzat eragozpen handia izango denik. »



AITOR ZINKUNEGI
GROS

« Musika jartzeari ez zait gaizki iruditzen auzokideak molestatzen ez dituen bitartean behintzat. Hala ere gabon abestiak ez zaizkit gehiegi gustatzen. »

« Ideia ona dela uste dut. Giro polita emango die kaleei eta eguberrietan hori behar da. »

J. M. ITURRALDE PARTE ZAHARRA



« Egun osoz musika bera entzuten egotea gehiegizkoa dela uste dut. Niri ez zaizkit eguberrietako kantak gustatzen eta ez dut gogo handirik goiz eta arratsalde abestihoriek entzuten egoteko. »

SEGUNDI AIESTARAN PARTE ZAHARRA



« Musikak egunez ez du oztoporik egiten oso altu jartzen ez badute behintzat. Egun horietan kaleak girotu egingo ditu musikak eta hori polita da. »



ZINKUNEGI
OPTIKA



OPTOMETRIA
UKIPEN LENTEAK


MULTIOPTICAS

Hernani, 4 DONOSTIA. Tfnoa.: 420624

LOREAK
HUNTZ

Matia, 44 • Tfnoa.: 31 06 41

Ekologismoaren barruan ikusten dut euskara ere. Euskara da, nolabait esateko, Arima barruko zuhaitzetako bat, eta beraz mantendu beharreko zerbeit.



Gregorianoa duzu beraz musikarik gogokoena?

Musika kontutan orojalea naiz, baina aukera egitekotan gregorianoa eta musika barrokoa nahiago ditut.

Oso futbolari ona omen zinen, eta utzi egin zenuen. Zergatik?

Sansen jokatzen ari nintzela sortu zitzaidan Venezuelara joateko aukera eta alde egin nuen. Gainera futboleant aritzeko, atera begiratu eta golak sartu behar dira, eta ni filosofatzen barreiatzen nintzen. Buruko kontua izan zen futbola uztea.

Aurki bukatuko dugu urtea eta berria hasiko. Zer eskatuko zenuke urte berriari?

Maila pertsonalean idazten jarraitu ahal izatea, eta Euskal Herriari dagokionean gure arteko istilu hauek behingoz konpontzea.

JONE DORRONSORO

ARGAZKIA: ROXALI FERNANDEZ



SORGINORRATZ HEGAL-URDINAK,
HAIZEAREN JOSTAILUAK;
ERREKAREN KRISTAL CARBIAN,
SORGINDURIK EZKAILUAK;
HARRIAK BIRIBILTZEN DITU
UR-LASTERRAREN MAILUAK.

Lehen mugimendua behar nuen bezala, orain gero eta gutxiago. Gehiago dauzkat gustora egoten naizen leku jakin batzuk: Almeria, Ezkarai, iturria

duen monastegiren bat...

Monasterio batean sartuta egotea gustatzen al zaizu bada?

Monastegi bat da bate-

ra leku itxi bat eta espazio zabal bat. Musika gregorianoa zapalgarria izan daiteke batzuentzat, eta neri berriz ate bat zabalitzen dit barruan...

BILINTX megadenda

■ Kultura eta Aisialdirako, denda kontzeptu berria.

■ 800 m2



IGANDE
ETA
JAIEGUNETAN
ZABALIK

MUSIKA
BIDEOAK
JOKU HEZIGARRIAK
ALDIZKARIAK
ETA LIBURU-SAIL GUZTIZ OSATUA

Fermin Kalbeton, 21 - DONOSTIA. Tf.: 420080 / Fax: 420388



KAFETEGIA

- Giro ezin hobea
- Bazkariak
- Miguel Ezpi-ren erakusketa

Okendo, 8 / Tfnoa.: 429882 - 420736

SURAH



Ohialak

Urbietan, 41
Tfnoa.: 46 98 79

**EL
TURISTA**

KIROL ETA
BIDAETARAKO
ARTIKULUA

LEGAZPI, 6 • Tfnoa.: 42 77 46

Gabi's

ORRAZTEGIA

Makilaia, manikura
alergiaren aurkako kolore berriak

San Martin, 11
Tfnoa.: 42 07 85

La Brasserie



BUFFET • PARRILA • BETIKO SUKALDARITZA

Zubieta, 2 LONDRESEKO HOTELA
Tfnoa.: 42 69 89 Fax: 42 00 31

hiri-miri • hiri-miri • hiri-miri

Toribio Alzaga gogoratu

Toribio Alzaga antzerkigilearen heriotzaren 50. urterena dela eta, hainbat ekintza antolatu dira abenduaren 12tik 21era bitartean.

«Euskal Antzerkia Donostian (1915-1981)» erakusketazabalik egongo da aste osoan zehar Udal Liburutegian eta hainbat hitzaldi eta mahai-inguru ere egingo dira. Hilaren 21ean bere lanaren errekonozimendu gisa plaka bat jarriko da «Kainoietan» iturriaren ondoan. Eguerdiko 12.00etan aurkeztuko da oroigarri hau. Arratsaldeko 17.00etan bere omenezko ekitaldi bat egingo da Antzoki Zaharrean.

Eguberrietako Haur Parkea

Hilaren 20tik datorren urtarrilaren 8ra bitartean egongo da irekita aurten Eguberrietako Haur Parkea. Ia 3.000 haurrek parte hartu ahal izango dute Anotan egingo diren joku antzerki, jaialdi eta lehiaketetan. Sarrerak salgai daude jadanik 500 pezetaren truke Askatasunaren hiribideko Kutxaren bulego automatikoan.



Astoren bat bada oraindik

Astoa desagertzeaz dagoen animalia mota omen da, lau hankakoa alegia, bikoak oraindik ere iraungo dute. Guk Donostian bertan, erresidentziako bidean, Anoetako estadia atzean duela, astotxo hau aurkitu dugu. Bakarra ez bada ere, ez du bere kideko askorik izango gure hirian.

atzera begira

**Duela 25 urte
1969ko abenduak 23**

Sansek 8-0 irabazi zion Atotxan Barbastrori.

**Duela 50 urte
1944ko abenduak 23**

Gabonetako «gordo» (15 milioi) loteriaren 150.000 pezeta Donostira etorri ziren, ACC akademiara hain zuzen.